



Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea



etxe
pare
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
BASQUE INSTITUTE

HELDUEN ALFABETATZE ETA BERRESKALDUNTZERAKO ERAKUNDEAREN ETA ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUAREN ARTEKO HITZARMENA, "EUSKARA MUNDUAN" EGITASMOA ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUAREN EGITURARA ERAMAN ETA HABE ERAKUNDEAREKIN LANKIDETZA-ESPARRUAK ZEDARRITZEKO.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko abenduaren 1ean.

BILDU DIRA

Alde batetik, Bingen Zupiria Gorostidi, HABEren lehendakaria, azaroaren 25eko 29/1983 Legearen 9. artikulua aitortzen dion ordezkotzaren arabera,

Bestetik, Miren Arzalluz Loroño, ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUAREN zuzendaria, Etxepare Euskal Institutua sortzeko eta arautzeko den apirilaren 20ko 3/2007 Legeak bere 9. artikuluan aitortzen dizkion eskumenen babesean.

ADIERAZI DUTE

LEHENEA.- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortu zeneko azaroaren 25eko 29/1983 Legearekin bat etorritik, HABE erakundea Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari atxikitako izaera administratibodun Erakunde Autonomiaduna dela, bere nortasun juridikoa eta gaitasun osoa duena bere helburuak gauzatzera zuzendutako lanak burutzeko, bere helburu nagusia helduen euskalduntzegintza izanik.

HABEk, helburu hori lortzeko, abian jarri zituen zenbait egitasmo 1983. urtetik aurrera. Egitasmo horien gauzatze-eremua zabaldu zen 1989.ean, euskararen erabilera-eremuetatik landa: Argentinako Euskal Etxeen eskariz, Euskal Etxeotan euskarazko ikastaroak antolatzeari ekin zitzaion "Argentina euskaraz" izenburupean.

Ondoren, Euskadik, euskal gizarteak eta bertako erakundeek Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanak sustatu, lagundu eta areagotzeko helburuarekin onartu zen maiatzaren 27ko 8/1994 Legearen eraginez, areagotu egin zen euskararen erabilera-eremuetatik landa burututako helduen euskalduntzearen inguruko elkarlana, hain zuzen ere, eremuko erakunde espezializatu gisa, HABE arduratu delako harrezkero euskarako ikastaroen sustapenaz, "Euskara Munduan" programaren bitartez, lege horren 8. artikulua emandako aginduari erantzunez.



Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea



etxe
pare
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
BASQUE INSTITUTE

Azkeneko urteotan Euskara Munduan programak hiru lan-lerro ditu HABEn:

- Irakasleen trebakuntza
- Euskarazko eskolak bideratzeko baliabide material eta teknikoen horniketa
- Euskarazko eskolen antolaketa diruz laguntzea

BIGARRENA.- Aldi berean, azaroaren 25eko 29/1983 Legearearen 20. artikuluan eta uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuaren 4. artikuluan jasotako aurreikuspenari erantzunez, Helduen euskalduntzearen oinarritzko kurrikuluaren araberrako egiaztatze-gintza arduratu zen HABE eta hala jarraitzen du arduratzen indarrean dagoen legediak aitortzen dizkion jarduerak-eremuak eta eskumenak baliatuz (lehenengoz, 2000 eta 2006ko Aginduen bitartez onartutako Kurrikuluaren araberrako gaitasun-mailak eta 2003ko abuztuaren 6ko Agindu bidez ezarritako egiaztatze-sistemari jarraikiz; egun, 2015eko uztailaren 22ko Aginduz onartutako Curriculumean zedarrituriko gaitasun-mailak eta 2016ko azaroaren 23ko Aginduaren bitartez ezarritako egiaztatze-sistemari jarraituz).

Hala, urtero antolatzen ditu HABEk hiru motatako egiaztatze-deialdiak: euskaltegietao ikasleei zuzendutakoak, Euskal Etxetako ikasleei zuzendutako azterketa-deialdiak, eta azterketa-deialdi irekiak.

HIRUGARRENA.- Etxepare Euskal Institutuak, bere aldetik, apirilaren 20ko 3/2007 Legearen bitartez sortutako zuzenbide pribatuko erakunde publikoa izanik, bere helburuak gauzatzera begira jarduteko nortasun juridiko propioa eta gaitasuna duenak, euskararen irakaskuntza, ikasketa eta erabilera mundu osoan sustatzeko helburua du. Horretarako, Lege horren 4. artikulua honako jarduerak burutu ahal izango dituela aurreikusten du:

- Euskara irakasteko ikastaroak sortu, sustatu eta antolatu
- Euskararen ezagutza egiaztatzeo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak onartuta dituen probak antolatzea, indarrean dagoen araudi erregulatzailleak ezartzen duenarekin bat etorriz.

Hala, Etxepare Euskal Institutuak aitortuta dituen eskumenen babesean bere ibilbidea egin du euskararen irakaskuntza mundu zabaleko zenbait unibertsitateetako egitarauetan txertatuz.

LAUGARRENA.- Orain, hitzarmen hau sinatzen duten Erakunde biek, egitasmoon eragingarritasuna areagotzeko, azkeneko urteetan aurrera eraman duten lan-jarduna ebaluatu eta ateratako ondorioak partekatu ondoren, "Euskara munduan" egitasmoa Etxepare Euskal Institutuaren egituraren baitan kokatu eta HABErekin esparru honetako lankidetzak-hitzaermenaren edukiak zedarritu nahi dituzte.

babeslea



Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea



etxe
pare
EUSKALINSTITUTUA
INSTITUTOVASCO
BASQUEINSTITUTE

BOSGARRENA.- Ildo horretatik, Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48 artikulua hala dio:

1. *Administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek eta unibertsitate publikoek, zeinek bere eskumenen barruan, hitzarmenak sinatu ahalko dituzte zuzenbide publikoko eta pribatuko subjektuekin, baina horrek ezin du ekarri eskumenaren titulartasuna lagatzea.*
2. ...
3. *Hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezzen lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria bete.*

SEIGARRENA.- Eusko Jaurlaritzaren XI. Legegintzaldirako 2016-2020 gobernu-programak bizikidetzarako giza eta kultur garapenari buruzko II.3 ardatzaren 120. konpromisoak, "Euskal kulturaren eta euskararen nazioarteko proiektzioa sustatzea Etxepare Institutuaren bidez" egikarituko dela dio eta konpromiso horren 2. ekimenak Etxepare Institutuak egitasmo horiek nola bideratuko dituen gaineratzen du: "Kanpoan euskararen irakaskuntza sustatu, irakurlegoaren bidez, euskararen eta euskal kulturaren katedren eta Euskara munduan programaren bidez".

Hori guztia ikusita, ETXEPARE Euskal Institutuak eta HABEk honako HITZARMEN hau sinatzen dute ondoren zehazten diren klausulen arabera.

KLAUSULAK:

LEHENENGOA.- Helburua

Hitzarmen honek xede du "EUSKARA MUNDUAN" egitasmoa ETXEPARE euskal institutuaren egiturara eramateko eta HABE erakundearekin esparru honetako lankidetzaz-lerroak zedarritu eta erakunde bien kudeaketaren eraginkortasuna areagotzeko, HABE eta Etxepare Euskal Institutuaren arteko gida-lerroak finkatu eta adostea, hitzarmen honetara biltzen diren edukietan adierazitakoaren arabera.

BIGARRENA.- Euskararen komunikazio-gaitasunaren egiaztapena

Hitzarmen honen arabera bideratuko dira Euskal Etxeetan eta ETXEPARE Euskal Institutuaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoetik kanpo emandako euskarako ikastaroetatik eratorritako egiaztatze-jarduerak.

Egiaztatze-jarduerok HABEren azterketa-deialdien bitartez gauzatuko dira, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2016ko urriaren 23ko Aginduan xedatutakoari jarraikiz.



Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea



HIRUGARRENA.- Programaren finantzaketa

Euskara munduan programak HABEn izan dituen ekonomi baliabideei eusteko jarritako izenburuak eta diru-kopuruak Etxepare Euskal Institutuaren aurrekontuetan egituratuta aurkeztuko dira 2018ko aurrekontuetan.

Salbuespenez, 2018ko HABEren aurrekontuetan jarriko dira 2017an abian jarri diren bi ekimen hauei dagozkien zuzkidurak:

-Euskal Etxeei 2017/18 ikasturtean zuzendutako diru-laguntzen deialdia.

-Euskal Etxeetako irakasleen prestakuntzarako on-line ikastaroak, 2018/19 ikasturtekoa barne.

LAUGARRENA.- Alde bakoitzaren betebeharrak

HABEk ondoren zehazten diren betebeharrak izango ditu:

- 1- EUSKARA MUNDUAN programatik eta ETXEPARE Euskal Institutuaren proiektuetatik eratorritako euskararen gaitasunarekin lotutako egiaztatze-jarduerak gauzatzea.
- 2- HABEk Euskara Munduan programa gauzatzeko dagoeneko kontraturik dituen zerbitzuak Etxepare Euskal Institutuaren esku jartzea zerbitzu horiek burutzen direnean.
- 3- HABEren web-atarietan eta euskararen autoikaskuntzarako plataformatan ostataturik dauden Euskal Munduan egitasmoaren ikastaroak eta atzerriko unibertsitateetako ikasleei eskaintzen zaizkien zerbitzuak Etxepare Institutuaren eskura jarri, berak bere plataforman txerta ditzan.
- 4- HABEk "Euskara munduan" programaren inguruko aholkularitza jarraitua eta etengabea eskainiko dio Etxepare Institutuari.

ETXEPARE Euskal Institutuak, bere aldetik, honako betebeharrak izango ditu:

- 1- Euskara Munduan programaren titular izan eta egitasmo horren kudeaketa eraman.
- 2- Euskara Munduan programaren baitan egikarrituko diren proiektuak gauzatzeko baliabide ekonomikoak jartzea.
- 3- Bere sarea, baliabide teknikoak, eta antolamendu organiko eta funtzionala jartzea Euskara Munduan programa egikaritzeko, eta gaur egun daukan zabalkundea mantentzeko eta sendotzeko.
- 4- Programa burutzeko beharrezkotzat jotzen dituen ekintza-proposamenak egitea.
- 5- Etxepare Institutuak bulego bat jarriko du HABEren eskura erakunde horren egoitzan, etengabeko aholkularitza modu egokian eskaini ahal izateko.

Handin



Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea



- 6- Etxepare Institutuak bere azpiegitura informatikoan txertatuko ditu HABEren web-atarietan eta euskararen autoikaskuntzarako plataformatan ostataturik dauden Euskal Munduan egitasmoaren ikastaroak eta atzerriko unibertsitateetako ikasleei eskaintzen zaizkien zerbitzuak, hitzarmen honen indar-epealdia hasi eta urtebeteko epean.

BOSGARRENA.- Datu pertsonalen babesa

Hitzarmen honen baitan gauzatzen diren proiektuetatik eratorritako datu pertsonalak, ezinbestez, indarrean dagoen araudiaren arabera tratatuko dira, eta hitzarmenean aurreikusitako elkarlana gauzatzeko beharrezkoak diren neurrian soilik.

SEIGARRENA.- Jarraipen-batzordea

Jarraipen-batzorde bat eratuko da, ETXEPARE Euskal Institutuko eta HABEko kideen artean osatutakoa, hitzarmen hau behar bezala kudeatu eta interpretatu ahal izateko, baita antolaketa-gaien eta euskararen irakaskuntzaren arlo akademikoaren inguruan bideratu beharreko jardueri irtenbidea emateko ere. Jarraipen-batzordeari dagokio jasotako informazioa aztertzea eta hobekuntzak proposatu eta erabakiak hartzea.

Jarraipen-batzorde horrek lau kide izango ditu, eta honela osatuko da:

- Etxepare Euskal Institutuaren izenean bi kide.
- HABEren izenean bi kide.

Batzordeburu Etxepare Euskal Institutuko ordezkari bat izango da.

Batzorde hori, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.1.f artikuluan xedatutakoaren arabera, hitzarmenaren eta sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipen, zaintza eta kontrolerako alderdiek adostu duten tresna da, eta aipatutako legearen 51.c) eta 52.3 artikuluetan ezarritakoaren arabera gauzatuko ditu bere eginkizunak.

Batzordeak ohiko bilkura bat izango du urtean. Horrez gainera, aparteko bilkura egingo du alderdi batek eskatzen duen bakoitzean.

ZAIZPIGARRENA.- Indarraldia

Hitzarmen honen indarraldia urtebetekoa izango da, 2018ko urtarrilaren 1etik hasi eta abenduaren 31 artekoa.

Handia

R



Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea



etxe
pare
EUSKALINSTITUTUA
INSTITUTOVASCO
BASQUEINSTITUTE

Indarraldi hori urtero luzatuko da berez, nola eta akordiodideetako batek edo biek indarraldi epea amaitu baino bi hilabete lehenago besterik adierazten ez duten. Isilbidezko luzapen hori baldintzatuta egongo da aurrekontu nahikoa izatera, baliabide ekonomikoak beharrezkoak suertatzen direnean.

ZORTZIGARRENA.- Araubide juridikoa.

Hitzarmen hau administrazio-izaerakoa da; beraz, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 4.1.c) artikularen aurreikusitakoarekin bat, horren aplikazio-eremutik kanpo dago.

Beraz, hitzarmen honen barruko lanak araubide juridikoak alderdi bakoitzari aitortzen dizkion eskumenak errespetatuz burutuko dira, eta, ondorioz, ez du esan nahi, ez eskumenen titulartasuna, ezta eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak ere, lagatzen direnik.

BEDERATZIGARRENA.- Gatazkak ebaztea.

Hitzarmen hau sinatu duten aldeek konpromisoa hartu dute hura betetzean sortzen diren gorabeherak elkar hartuta konpontzeko.

Hitzarmenaren garapenean eta burutzapenean alderdien arteko auziren bat sortzen bada eta bosgarren klausulan ezarritako jarraipen-batzordeak ezin badu konpondu, administrazioarekiko auzien jurisdikziora joko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa araupetzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat.

Hala ere, akordiodideetako batek, bere kabuz eta adostu gabe, hitzarmena bertan behera uzten duela adieraziko balu, ordura arte bideratutako ekimenei dagozkien betebeharrak burutu egin beharko ditu, eta hitzarmen hau haustearen ondorioen erantzukizuna ere bere gain hartuko du.

Esandakoarekin bat datozela frogatzeko, bi aldeek izenpetzen dute,

Izta.: Bingen Zupiria Gorostidi
HABEren lehendakaria

Izta.: Miren Arzalluz Loroño
ETXEPARE Euskal Institutuaren zuzendaria